anboto

TOKIKOM

2012ko ekainaren 8a
10. urtea - 462 zk.

durangaldeko astekaria

www.anboto.org

Herririk Herri | 4
Durangon neska bat bortxatzen saiatu direla gaitzetsi du Herria auzo elkarteak

Berbaz | 8
M. Otamendi: “Komunitate bat Berriaren inguruan inplikatzea da helburua”

Kultura | 9
Hip-hopa eta elkartasuna Durangoko Plateruenko Aftitud jaialdian, bihar

DURANGALDEA | 3

Asturiasen erreskate lanetan hil ziren taldekideak oroituko dituzte

Istripuaren 25. urtemuga dela-eta, Gallastegi, Diez, Verdes eta Zabala omenduko dituzte domekan Asturiasen bertan

Laguntza Txakurren Taldeak antolatutako omenaldira joango dira bihar Erdellako kideak eta hainbat garaitar

DURANGALDEA | 2

Oizegin.com, hemengo produktuen erakusleiho

Durangaldean eta Lea Artibain ekoiztutako produktuak promozionatu eta saltzeko webgunea aurkeztu du Urkiola Landa Garapenak astelehenean Plateruena kafe antzokian.

KIROLA | 16

Teutenberg alemaniarra erraz nagusitu zen esprintean

Ina Yoko Teutenberg 37 urteko alemaniarrak irabazi zuen Emakumeen Birako lehenengo etapa. Nahiko erraz nagusitu zen esprintean. Gaurko bigarren etapa Lekeition hasi eta amaituko da.

K.A.

Zaldibar | 7
Lehenengo Trikitilari Eguna antolatu dute ekainaren 16rako

Durangaldea | 2
Dantzaroan batuko dira bihar Durangaldeko 200 dantzari

Atxondo | 3
Udalak igerilekuen gastu zati bat ordaintzea eskatuko dio Elorriori

Berriz | 4
Auto elektrikoak erabilita 1.320 litro erregai aurreztuko dituzte

HERRIRIK HERRI >

Anboto Komunikabideak
@anboto

DURANGALDEA

Oizegin.com weba sortu dute bertoko elikagaiak saltzeko

Ekoizle eta kontsumitzaileen arteko hartu-emanak bultzatzeko webgunea sortu dute, denda eta guzti

Ekoizle batzuk hasi dira dagoeneko web gunean parte hartzen; zabalik utzi dute atea.

Baserritarrei egindako elkarrizketak, produktuen informazioa, errezeta eta aholkuentzako tartea, agenda... Eta denda birtuala. Durangaldean eta Lea Artibain ekoitzitako produktuei bultzada emateko sortu dute *oizegin.com* webgunea. Urkiola eta Lea-Artibai landa garapenerako elkarteek bultzatutako ekimena da, eta ekoizleen informazio eta erakusleihoa izatea gura dutela adierazi du Kati Simon Urkiola Landa Garapena elkarteko teknikariak.

Urkiola eta Lea-Artibai landa garapenerako elkarteek bultzatutako ekimena da

Erosketetarako Durangaldeko biltegia Abadiñoko Murueta baserrian egongo da

Berrikuntzen artean, online erosketak egiteko aukera dago. Erosketa horietarako Durangaldeko biltegia Abadiñoko Murueta baserrian egongo da. Astean banaketarako egun bi egongo dira: martitzenak eta eguenak. Produktu freskoak martitzenetan banatuko dituzte eta eskaerak egiteko azken egunak eguenak izango dira.

Bezeroengana, bide berriekin

Plateruenean egindako aurkezpenean, eskualdeetako hainbat ekoizle, kontsumitzaile eta sukaldari batu dira. Ekoizleek kontsumitzaileengana heltzeko bide berri bat legez ikusi dute ekimena. Aitor Solozabal abeltzainak, esaterako, web orria badaukala kontatu du, eta eragina igarri egin du: "Jende askok deitu izan dit webgunea ikusi eta gero". Abeltzainaren berbetan, "Interneten mundua oso handia da eta asmatu egin behar da jendearen gustoko gauzak egiten". Hemendik eta urte batzuetara, gero eta erosketa gehiago Internet bidez egingo direla uste du Aitor Solozabalek.

Webgunearena ideia ona izan daitekeela ikusten dute Mila Amillategi Mallabiko ortuari saltzaileak eta Maite Leanizbarrutia Elorriotako okinak, baina oraindik zalantzan dabiltza Interneten saltzen hasi edo ez. Amillategik Ermuko eta Eibarko fruta dendetara eroaten du generoa, eta Internet bidez bitartekari barik prezio altuagoan saldu ahalko duela pentsatzen du. Leanizbarrutiak ogia dendetara saltzen du, eta etxera etortzen zaizkio bila, Berriztik eta Elorriotik batez ere. Orain arteko bideez gainera, kontsumitzailearengana heltzeko beste bide bat izan daitekeela diote biek. ■ A. Ugalde

Bezeroa erakartzeaz aparte, harengana hurreratzen saiatu

Plateruneko aurkezpeneko gonbidatuen artean, Marisatsa produktu ekologikoen kontsumitzaile taldeko kideak egon dira. "Ekimen interesgarria" dela adierazi dute: "Produktu ekologikoek lekua edukitzea espero dugu". Marisatsak antolatzen dituen azokak, hitzaldiak, katak... Webgune berrian gaiagaz lotutako kontuak iragartzeko asmoa agertu dute.

Durangaldeko eta Lea Artibaiko hamaika jatetxeko sukaldariek atxikimendua adierazi diote Oiz Egin! egitasmoari, eta eurek ere badute lekua webgunean. Euren jatetxeen berri emateaz gainera, errezetak eta sukaldeko aholkuak eskainiko dituzte. Azaldu dutenez, ostalaritzan behar izaten duten kopurua eta barietatea edukitzea gaitzagoa bada ere, bertoko ekoizleekin hartueman zuzena edukitzen ahalegintzen dira: "Polita da jeneroa nondik datorren jakitea eta produktorea ezagutzea".

Ostalaritza arloan ere bezeroengana hurreratzeko moduak aldatu egin direla adierazi dute: "Bezeroa ez badator, bezeroarengana irten egin beharko dugu gauza berriak egitera". Krisia dela eta, jatetxeetara jende gutxiago joaten dela kontatu dute: "Orain arte laino baten bizi izan gara, ez zen guztiz normala. Aldaketara moldatu behar gara orain". ■ A. U.

200 dantzari inguru batuko dira zapatuan, Dantzaroan

Durangaldeko dantzen ikuskizuna eskainiko dute eskualdeko dantza taldeek, 19:30ean hasita

Durangoko Ezkurdi plazan Dantzaroa jaialdia egongo da bihar, Gerediaga elkarteak deituta. Durangaldeko dantzak ezagutzera emateko jaia laugarren aldiz antolatu dute aurten. Iaz, 200 dantzari inguru elkartu ziren dantza emanaldia emateko, eta aurten ere antzerako parte-hartzea espero dute.

Dantza giroa 19:00etan hasiko da, udaletxetik kalejira hastean. Eguraldi ona egiten badu Ezkurdin dantzatuko dute, eta bestela, Andra Mariako elizpean izango da dantza alardea.

Dantza saioan, mutilek banangoa, makiljokoa eta txotxongiloa dantzatuko dituzte, eta gero neskek eta mutilek elkarrekin, zinta dantza, estanpa eta arku dantza egingo dute.

Eskualdeko zortzi taldek parte hartuko dute jaian: Durangoko Kriskitinek eta Txoritxu Alaik; Berrizko Iremiñe eta San Lorentzok; Abadiñoko Iluntzek; Izurtzako Mendigainek; Iurretako Mikel Deunak eta Mañariko Andra Mari dantza taldeak. ■ A. U.

Iazko jaialdiko irudi bat. Gerediaga elkartea

Asturiasen hil ziren lau bolondresak omenduko dituzte

1987an erreskate lanetan hil ziren Gallastegi, Diez eta Verdes elorriarrak, eta Zabala garaitarra

Euskadiko Laguntza Txakurren Taldeko lau kide helikoptero istripuan hil ziren duela 25 urte, Asturiasen. Erreskate batean zebiltzala jazo zen ezbeharra, Europako Gailurretan. Galdutako ume baten bilaketan jausi zen helikopteroa. Javier Gallastegi, Luis Angel Diez eta Lourdes Verdes elorriarrak eta Joseba Zabala garaitarra zihoazen bertan, euren txakurrekin. Beraiekin, helikopteroko pilotua, kopilotua eta Asturiasko Larrialdietako Koordinatzailea hil ziren. Urtemuga dela-eta, omenaldia egingo diete domekan han, Cangas de Onisen.

Taldeak jarraitu egin du

Taldea sortu eta lau urtera gertatu zen istripua. Elorrion ezarri zuen egoitza taldeak, eta kide gehienak Durangaldekoak ziren. Kolpe handia izan zen taldearentzat eta ingurukoentzat. Baina, aurrera egin eta gaurko eguneraino lanean jarraitu dute, mendian eta eraikinak jaustean pertsonak bilatzen. Urteotan belaunaldi berriak gehitzen joan dira borondatezko proiektura, eta prestakuntzan aurrerapausuak eman dituzte. SOS Deiak zerbitzuaren bidez egiten dituzte irteerak, eta eguneko 24 orduetan daude funtzionatzeko gertu. Isileko lana egin arren, erreferentzia hartu dute erreskatearen alorrean. Datorren urtean 30 urte beteko ditu Euskadiko Laguntza Txakurren taldeak.

Elorrion ezarri zuen egoitza taldeak, eta kide gehienak Durangaldekoak ziren

Urteotan belaunaldi berriak gehitzen joan dira borondatezko proiektura

Omenaldira irteerak

Omenaldian ez dira laguntza taldekoak bakarrik egongo. Erdellak irteera eratu du, hildako bi mendi talde horretako kide zirelako. Bihar goizean irtengo dute eta Europako Gailurretan ibilbide bat egiteko aprobetxatuko dute.

Garaitik ere taldean joango dira; bihar eguerdian ipini dute irteteko hitzordua. 60 lagun baino gehiagok eman du izena, azaldu dutenez. ■ M. Onaindia

Asturiasen istripua gertatu aurretik atera zuten argazkia.

"Helikopteroan nortzuk jaitsi zotz egin genuen"



Jon Ander Mardones

Euskadiko Laguntza Txakurren Taldeko sortzaileetako bat izan zen. Taldean hasieratik geratzen den kide bakarra da. 60 urte dauzka, eta Bilbon bizi da.

Zu ere egon zinen Asturiasko erreskatean.

Orain urrunetik begiratzen duzu, baina une hartan trauma potoloa izan zen. Izugarrizko kolpea izan zen. Taldeagatik ere bai; zortzi ginen eta lau galdu genituen. Helikopteroan nortzuk jaitsi zotz egin genuen. Ni nintzen koordinatzailea eta walky-talkytik esan zidaten istripua gertatu zela aireratzean. Zerbait boluntarioa denean, ez duzu halakorik espero.

Kolpeari aurre egin zenioten...

Lehenengo eta behin pertsonalki gainditu behar izan genuen. Aspaldiko lagunak ginen. Talde moduan, asko kostatu zitzaigun jende berria topatzea eta txakur berriak heztea.

Taldeak iraun du. Ibilbide luzea daukazue.

Alemaniar bat asteburuetan etortzen zen hona erakustera. Alemanian egin genuen azterketa. Galdakaoko Riotinto lehergailu fabrikako leherketa izan zen gure lehenengo operazioa. Gaur egun, taldea ona da eta luzarorako dagoela esango nuke. Pausu bat harago joan eta txakurraren psikologian barneratzen saiatu gara.

ATXONDO

Igerilekuak Elorriogaz kudeatu gura ditu udalak

Atxondok batzar bat eskatu dio Elorrioko Udalari errekurtsoen optimizazioari buruz berba egiteko

Maiatzaren 22an Atxndoko gobernu taldeak gutun bat bidali zion Elorrioko Udalari batzar bat eskatzeko. Herri bietako errekurtsoen optimizaziori buruz berba egin gura du Atxondoko Udalak. Esaterako, lankidetza hitzarmenik adostu daitekeen aztertu gura dute, Elorriok Atxondoko igerilekuen kudeaketa eta mantenuan lagundu dezan. Igerilekuak konpartitzea edo bestela aukerak eztabaiatzeko batzarra egin gura dute Elorriogaz. Orain-dik ez dute erantzunik jaso.

Bestalde, igerilekuak duen isuria konpontzeko hainbat eraberritze lan egin dituzte brigadako langileek azken asteotan. Lan horiek eginda, asteon, igerilekua urez erdiraino beteta utzi dute, eta Juanjo Nora alkateordearen esanetan, "ez du urik galdu". Baikor agertu da: "Egoerak itxura ona du". Datorren astean, legeak ezarritako beste proba batzuk egingo dituzte. Dena ondo badoa, igerilekua ekainaren 29an irekiko dute. ■ J. D.

GARAI

Frontoiko aldagelak konpontzeko, 125.500 euro

Garaiko Udalak 125.500 euro aurreikusi ditu laster hasiko den frontoiko aldagelen obrarako. Egitasmo hau ez zegoen urteko aurrekontu orokorrean zehaztuta, eta horregatik egin behar izan dute orain aurreikuspena. Diru-laguntzen menpe egon da egitasmoa, eta ez zekiten laguntzarik jasoko zuten ala ez. Azkenean, heldu da Eusko Jaurlaritzaren ekarpen hori.

Aldagelak zaharrak direlako egingo dituzte lanak. Baita elbarrientzako irisgarritasuna hobetzeko helburuagaz ere. Komunez gainera, teilatua, argia eta uraren instalazioak ere berriztuko dituzte obretan.

Aurrekontua 125.500 eurokoa da momentuz. Lanak adjudikatzean murriztu egin daiteke inbertituko den kopurua. ■ M.O.

BERRIZ

Ibilgailu berriekin, 1.320 litro erregai aurreztuko ditu udalak

Hiru ibilgailu elektriko erosi ditu udalak: furgoi komertziala, erabilera askotakoa eta bizikleta

Emisio bako ibilgailuak erosi ditu udalak, barne erabilerarako. Orlan Isoird alkateak aurkeztu ditu prentsaren aurrean. "Ibilgailu elektrikoak etorkizuneko apustua dira". Kontsumoa eta emisioa murriztuko dituztela dio. Batetik, 1.320 litro erregai gutxiago beharko dutela kalkulatu dute udal teknikariek. Bestetik, CO_2, CH_4 eta N_2O sustantzien emisio kutsakorra 3.914 kilo murriztea aurreikusi dute.

Brigadarentzako furgoi komertziala, bizikleta eta erabilera askotako ibilgailua erosi dituzte. Azken hori, aterik ate batzen duten hondakin organikoa konpostaje plantara eroateko ere erabiltzen dute. Bizikleta, beharginek erabiliko dute, enkarguak egiteko.

68.000 euro inbertitu dituzte, 46.000 euroko laguntzagaz. Aurrekontuan sei urterako elektrizitate gastua sartu dute. Gogoratu duenez, era honetako ibilgailuak erosten dituztenek, udal tasetan obariak edukiko dituzte: %75 elektrikoetan eta %50 hibridoetan. Udalak, ibilgailu berriekin, herritarrentzako erreferentzia izan gura du. ■ M. Onaindia.

Orlan Isoird alkatea, erabilera askotako ibilgailua probatzen.

DURANGO

Maileguak inbertsioetan erabili ez izana kritikatu die Aralarrek jeltzaleei

Udalaren zorpetzea "oso baxua" dela dio EAJk

Aurrekontuak luzapen egoeran dauden honetan, udaleko diru kontuen gaineko adierazpenak egin dituzte Aralarrek eta EAJk. Ohar bidez, Aitziber Irigoras alkateak (EAJ) udalaren zorpetze maila "oso baxua" dela esan du: %9,6koa. Jasota baina erabili barik dauden maileguak kontuan hartuta, %27,06koa da.

Datu horiek Aralarrek egindako kritikaren ostean plazaratu ditu EAJk. Dani Maeztuk (Aralar) prentsaurrean esan duenez, udalak 5,1 milioiko zorra dauka kreditu eskaerengatik . EAJri kredituak eskatu eta gero inbertsioak ez garatzea leporatu dio Aralarrek: "Ezker ikuspegitik zorra ez da kritikagarria justifikatuta badago, baina akordatutako inbertsioen %27 bakarrik dago exekutatuta".

Aurrekontuen zirriborroan, 27 milioietatik 12,4 milioi arinago onartutako inbertsioetarako direla kritikatu du Maeztuk. Azaldu duenez, inbertsioen banakako informazioa eskatu dute, eta erabili ez diren maileguak zer finantzatzeko diren ere bai.

Aitziber Irigorasek esan duenez, liburutegia eta igerilekuak lako egitasmoetan diru-kopuru handia gastatu du udalak. Hala ere, zor erreala (%9,6) "oso baxua" dela baloratu du. 2009an eta 2010ean eskatu eta erabili barik dauden maileguak gehituz gero geratzen den zorrak (%27,06), "ez du kostu gehigarririk suposatzen", alkatearen berbetan.

Alkateak adierazi du udalak ordainketak "egunean" egiten dituela: "Durangoko enpresa txiki eta ertain askorekin gabiltza lanean, eta horregatik epe barruan ordaindu behar dugu, are gehiago garai hauetan". ■ A. U.

Munduko Arrozak jaia Ezkurdin, bihar

Eguerditik aurrera, 600 pertsona inguru batuko dira bihar, Ezkurdi plazan, Munduko Arrozen jaian. Koadrila eta elkarteek arroza bakoitzak bere erara egin eta hainbat kulturatako arrozak dastatzeko aukera egongo da.

Bazkal aurretik umeentzako jokuak, txaranga, txalaparta eta batukada izango dituzte. 14:30ean ipini dute bazkaritarako ordua. Arratsaldean munduko jokuak, Senegalgo dantzak, musika eta txokolatea edukiko dituzte. ■ A.U.

Bortxaketa saiakera gaitzetsi du Herriak

Durangoko Herria auzo elkarteak neska baten kontrako bortxaketa saiakera publikoki gaitzetsi du ohar bidez. Herria auzo elkarteak adierazi duenez, domeka goizaldean jazo zen erasoa, 06:00ak bueltan, Zabalarra auzuneko Bruss enpresaren parean. Jakinarazi dutenez, neska durangarra etxerantz zihoan momentu horretan, eta erasoaren aurrean neskaren erresistentziak eta oihuek erasotzailea uxatu zuten. Gizonak alde egin zuen lekutik.

Borrokaren ondorioz, neskak kolpeak hartu zituen, eta urduritasun krisian murgildu

Borrokaren ondorioz, neskak kolpeak hartu zituen, eta urduritasun krisi sakonean murgildu zela dio auzo elkartekoen prentsa oharrak. Neskak ertzainetxean salatu zuen bere kontrako erasoa.

Datu eske

Inork domekako erasoaren daturik eman badezake, Ertzaintzari abisu ematea eskatu du Herriak, ustezko erasotzailea atxilotu ahal izateko. Gainera, instituzioei ere eskaera egin die: "Hartu ditzatela beharrezko neurri guztiak, horrelako eraso larriak berriro ez gertatzeko". ■ M. O.

Urrezko TAK21 saria lortu du Durangoko Agenda 21ek

Legazpigaz batera, Tokiko Agenda 21eko prozesuan emaitzarik onenak edukitzeagatik urrezko TAK21 saria lortu du Durangok.

Aitziber Irigoras alkatea, Iker Oceja Garapen Iraunkorreko batzordeburua eta Aitor Larruzea Agenda 21eko teknikaria izan dira sari banaketan. "Herritarrekin batera egindako lana eta izan duten inplikazioa" goraipatu ditu Irigorasek.

IZURTZA

Espekulazio bako erabilera nahi dute etxe berrietarako

Danimarkako kooperatiba sistema proposatu dute

Udalak batzar irekia egin zuen eguaztenean, etorkizunean eraiki gura diren hamabost etxebizitzak kudeatzeko proposamen berria azaltzeko. Frantzian, Alemanian, Suedian eta, batez ere, Danimarkan oso garatuta dauden kooperatiba sistema proposatu zuten. Zehazki, daniarrek askotan erabiltzen den Andel eredua.

Eredu horren arabera, eraikina kooperatibaren jabetzakoa litzakete eta bazkide bakoitzak etxebizitza baten erabilera-lagapena izango luke. Bizileku horiek ezingo lirateke hipotekatu, saldu edo errentan ipini, baina herentzian eman ahalko lirateke.

Lurrak udalaren jabetzakoak izango direnez, sistema horren bidez, espekulazioari aurka egingo lioketela uste du udalak.

Etxebizitzetarako 27 eskari egon ziren eta baldintzak betetzen dituztenen artean zozketatuko dira. Sistemari buruzko informazioa udaletxean dago eskuragarri. Iritziak jasotzeko beste batzar bat egitea aurreikusi dute. ■ J. D.

4 ALMACENES ARRASATE

TIEN 21

Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO

Kataide Industrigunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13

7 URTEKO BERMEA FAGOR PRODUKTU GUZTIETAN

1200 b/min 6 kg
A++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-6012
299 € FAGOR

1200 b/min 7 kg
A++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-7212X
399 € FAGOR

1400 b/min 7 kg
A++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WAE-28161EP
399 € BOSCH

1200 b/min 8 kg
A+++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WM-12Q488
445 € SIEMENS

1200 b/min 8 kg
A+++ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-8212
399 € FAGOR

A+ LABEA HB-74AS551E
490 € SIEMENS

INDUKZIOZKO PLAKA EH-651TK11E
445€ SIEMENS

INDUKZIOZKO PLAKA IF-3BS
365 € FAGOR

1850 X 600 X 600
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA FFJ-6725
545 € FAGOR

2000 X 600 X 600
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA FFK-6835X
625 € FAGOR

maiatzean %20 arteko* deskontuak

elektrogailu bakoitzagaitik FAGOR markako sartaia opari

FAGOR edesa | BOSCH Balay | AEG SIEMENS

* Beherapena duten produktuetan izan ezik.

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistentzako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.

ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA JASOKO DA
MERKEAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA
GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU
+dendak-EKO "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI

MAÑARIA

Partaidetza handitu eta auzolanean jarraituko dute asteburu honetan

Joan zen asteburuko saioan espero baino behar gehiago aurreratu zuten, udalak adierazi duenez

Udalak proposatutako auzolanaren bigarren saioa egingo dute asteburu honetan. Auzobideak garbitzen eta herria atontzen hasi ziren joan zen astean mañariarrak. 40 lagunen bueltan ibili ziren lan-tresnak eskuan hartuta. Asteburuan, partaidetza handituta jarraituko dute auzolanean. Eneritz Elgezua zinegotziak eman ditu azalpenak: "Azken egunotan, beste hamalau pertsonak eman dute izena".

Elgezuak balorazio oso positiboa egin du joan zen asteburuko emaitza ikusita. "Espero baino gehiago aurreratu genuen". Azaldu dutenez, batez ere auzobideak garbitzen ibili ziren. Jendea gogoz aritu ei zen, eta "giro ona" izan zuten beharrerako. Lanak amaituta, luntxa prestatu zuten parte-hartzaileentzat.

Auzobideekin segituko dute

Aurreko asteburuan herriko zenbait eremutan ibli ziren lanean. Oraingoan, beste auzobide batzuk garbitzera joango dira. Bihar goizean batuko dira berriro. ■ M. O.

Auzolaneko partaide batzuk, beharra amaituta, luntxean.

ELORRIO

Nosotras eta Vosotras taldeetako jokalariak, 1969an, Elizalden partidua hasi aurretik.

Bihar ostera ere elkartuko dira Nosotras eta Vosotras

Andren arteko lehen futbol partidua jokatu zutenek bazkaria egingo dute

Gaur 43 urte bete dira Elorrion sona handiko futbol partidu bat jokatu zenetik. Emakumeen arteko lehenengoa izan zen. Elorriokoak ziren bi taldeak: Nosotras eta Vosotras. Dirua batzea zen garrantzitsuena eta ez ziren larregi kezkatu taldeen izenekin.Partidu haregaz, herriko Gazte Astea antolatzeko dirua batu gura zuten. Elizaldeko zelaia bete egin zen eta sasoi hartako 33.000 pezeta batu zituzten. Orain, urtemuga aprobetxatuta, berriro elkartzea pentsatu dute. Bihar plazan batuko dira, 12:30ean, eta poteoaren ostean Kotxeron bazkalduko dute, eta sasoi harek gogoratu.

Emaitza gutxienekoa izan zen, baina ez zen emoziorik falta izan: 0-0 berdindu eta penaltietara erabaki zuten neurketa; Nosotras taldeak irabazi zuen. Athleticek eta elorriar batek ekarri zituzten sariak: kopa bana eta loreak.

Gerora, futbolean jarraitzeko aukera sortu zitzaien. Durangoko Kemen taldeagaz elkartu eta Hierro Txapelketan aritu ziren, Begoña Arregik oroitu duenez. "Emaitza txarrak, baina akordu ona daukagu". ■ M. Onaindia

MALLABIA

Gereako Jaietan umeen jolasak, bertsolariak eta herri kirolariak

Eguenean txopoa jasota jarriko dituzte jaiak martxan Gerea auzoan, datorren astean. Ekainaren 15ean, briska jokoan aritzeko aukera eskainiko diete Gereara gerturatzen diren guztiei. Ekainaren 16rako, berriz, 12:00etan meza eta *zurrutada* prestatu dituzte. Arratsaldeko 16:30etik aurrera, umeentzako txokolatea banatuko dutela azaldu dute antolatzaileek.

Ekainaren 17rako egun osoko jaia antolatu dute. 11:00etan meza eskainiko dute. Ostean, dantzari eta bertsolarien (Beñat eta Jon Artza) txanda izango da. Herri kiroletan Karmele eta Maider Gisasola mallabiarrak trontzan arituko dira. Jon Gisasola eta Ureta berriz harrijasotzen arituko dira. Umeen jolasak eta asto probak ere izango dira jaietan. ■ J.G.

Herrira mugimendua aurkeztuko dute gaur

Preso eta iheslarien aldeko mugimenduaren ildo eta helburuak azalduko dituzte iluntzean, plazan

Elorrioko Herrira mugimenduaren aurkezpena egingo dute gaur iluntzean. 20:00etan hasiko da ekitaldia, plazan. Euskal Herri mailan egituratzen dabil Herrira, eta Elorrion ere osatu dute. Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko lanak garatu gura dituzte, mugimendu izaeragaz. Gaur emango dute ildo eta helburu horien berri.

Herrira: "Prozesuak guztion partaidetza eskatzen du, baita preso eta iheslariena ere"

Presoei ezartzen zaizkien hiru neurri indargabetzea da mugimenduaren lehentasuna: dispertsioa, bizi arteko zigorra eta isolamendua. Gaixo larriak askatzea ere presazkoa da Herrirarentzat. Gatazkaren irtenbideaz honakoa diote: "Prozesuak guztion partaidetza eskatzen du, baita preso eta iheslari politikoena ere". ■ M. O.

IURRETA

Tokiko dantzei buruz berba egingo dute gaian adituek

'Dantza autoktonoen ezbaiko egoera' hitzaldia eratu du Gerediaga elkarteak ekainaren 14rako

Tokiko dantzen egoeraz eta etorkizunaz ariko dira ekainaren 14an, Ibarretxe kultur etxean. Durangaldeko Folklore Egunak zikloaren baitan eratu du mahai-ingurua Gerediaga elkarteak, eta *Dantza autoktonoen ezbaiko egoera* izango da berbarako abiapuntua, 19:30etik aurrera.

"Dantzazale eta kulturaren egoeraz arduratuta dagoen orori" zabaldu diete deia

Lau aditu gonbidatu dituzte: Iñaki Irigoien, folklore ikerlaria eta Bizkaiko Dantzarien Biltzarreko kidea; Emilio Xabier Dueñas, Eusko Ikaskuntzako folklore presidentea; Oier Araolaza, Bizkaiko Aldundiko Ondare saileko teknikaria; eta Alberto Santana, folklore ikerlaria. "Dantzazale zein kulturaren egoeraz arduratuta dagoen orori" zabaldu diete deia Gerediagakoek. ■ A. Basauri

Institutuak External Global Services enpresa sarituko du

Iurreta Institutuaren Saria External Global Services S.A. enpresak jasoko du aurten. Horrela erabaki du institutuko mintegiak. Enpresaren zerbitzuen zuzendari Fatima Fraile durangarrak jasoko du saria, gaur, areto nagusian egingo duten ekitaldian. Iurreta Institutuaren Sariek bederatzigarren edizioa dute aurtengoa.

2003an sortu zen External Global Services, informazio eta komunikazioaren teknologia zerbitzuak kudeatzeko eta bezeroen negozio prozesuei balio handiena emateko. Egun, Trapagan eta Elorrion ditu egoitzak. Institutuko 30 bat ikaslek egin dituzte praktikak bertan, eta horietatik hamazortzi lan-taldean daude. Hartu-eman "adeitsu" eta "erraz" hori aitortu gura dute. ■ A.B.

Durangaldean labur

Pezetatan erosteko aukera ekainean

Bere garaian eurotara aldatu barik geratutako pezetak gastatzeko aukera eskaini du +Dendak merkatarien elkarteak bere kanpaina berrienean. Ekainean elkarteko bazkide diren 60 denda baino gehiagotan pezetekin ordaintzeko aukera egongo da.

Anbotoren kazetaritza tailerra

Anboto astekariak kazetaritza tailerra eskaini du asteon Durangoko Ibaizabal ikastolan. Jone Guenetxea zuzendaria ibili da irakasle.

50. urteurreneko bazkaria Tronperrik

Durangoko Tronperri dantza taldeak 50. urtemugako bazkaria egingo du ekainaren 24an Azoka plazan. Bazkarirako, ekainaren 18ra arte eman ahal da izena, taldearen lokaletan, 17:00etatik 19:00etara. Bazkalondoan Luhartzegaz erromeria egongo da.

Dantza ikastaroko amaiera jaia bihar

Elorrioko dantza ikasleek amaitu dute ikasturtea. Bihar, 19:30ean, dantzaldia daukate plazan. Jainaga eta Narbaiza musikarien erromeriagaz dantzatzeko aukera edukiko dute bertaratzen direnek. Arriola antzokian ibili dira urtean zehar ikasten.

ZALDIBAR

Lehenengo Trikitilari Eguna eratu dute ekainaren 16rako

Herriko trikitilari gazteek antolatu dute egitaraua, gaztetxeko, gaztelekuko eta udal ordezkariekin

Herriko trikitilari gazteen proposamenetik sorturikoa da I. TrikitilariEguna. Egun osorako egitaraua osatu dute trikitilari gazteek, gaztelekuak, gaztetxeak eta udalak elkarlanean, ekainaren 16rako. Antolatzaileek eta Arantza Baigorri alkateak aurkeztu dute ekimena.

Datorren zapatuan, 11:30ean, udaletxeko plazatik botako dute txupinazoa, jaia abiarazteko. 12:30ean, trikitixa emanaldia eskainiko dute plazan, parte hartzera animatzen diren trikitilari eta panderojoleek, herrikoek eta kanpokoek. Izan ere, inguruko herrietako trikitilariak gonbidatu dituzte: *trikitixazaldibar@gmail.com* helbidean eman ahal da izena.

Herriko gazte talde bat izatea ekimena bultzatu duena "oso pozgarria" da, alkatearen ustez

Herriko gazte talde bat izatea ekimena bultzatu duena "oso pozgarria" da, Arantza Baigorri alkatearen ustez. Helburua, "jai giroa eta jendeari trikitixarekiko interesa piztea da". ■ I.E.

OTXANDIO

Mekoleta auzoko jaietan musika izango da nagusi

Iturriaga, Elortza, 'Abarkas' eta Ugartetxea bertsolariak baserririk baserri ibiliko dira kantari

Mekoleta auzoan San Bernabe jaiak ospatuko dituzte asteburuan. Urterik urtera gero eta jende gehiago batzen duen *Bertso Birak* lau bertsolari batuko ditu aurten: Igor Elortza, Unai Iturriaga, Eneko Abasolo *Abarkas* eta Beñat Ugartetxea. Zapatuan, 23:30ean, hamar bat baserritik ibiliko dira bertsotan, Arratiko Arantzarte dantza taldeagaz. Auzotarrak ez ezik, Otxandio herriguneko hainbat bizilagun hurreratzen da ekimena bertatik bertara jarraitzeko.

Jaiak gaur gaueko txupinagaz hasiko dituzte. Segidan Kilauea, Boot Boys eta DJ Artapalo musika taldeak ariko dira zuzenean.

Bihar, 17:30ean, Otxandioko Urduri taldeak dantzak erakutsiko ditu. Ostean, Anne Mona, Oskola eta Karramarroi antzerki taldeak gaztetxoei zuzendutako *Ino, ino, ino, badator Bonbardino* lana antzeztuko du. Jarraian, Otxandio, Oleta eta Arratiko koadrillak herri kiroletan lehiatuko dira, jai giroa sortzeko eta herri kirolak bultzatzeko. DJ Gorrotxaren musikak errematatuko du gaua, 23:30etik aurrera.

Astelehenean, San Bernabe egunean, meza eta luntxa egongo dira eguerdian. Azkenik, 17:30ean mus eta briska txapelketak jokatuko dituzte. ■ J.D.

ABADIÑO

Lanean hasiko dira Kultura, Kirol eta Nagusien aholku batzordeak

Elkarte eta herritarrei batzordeetan parte hartzea proposatuko die udalak

Kultura eta kirolagaz loturiko gaiak, eta nagusien arlokoak landuko dituzte udalaren aholku batzordeetan. Gai horiei lotuta, udalarentzako aholkulari jardungo dute batzorde horietan parte hartzen dutenek. Kultura, kirola eta nagusien arloko gaiak eztabaidatuko dituzte, eta baita proposamenak bideratu ere. Udal ekipamenduen eta ekintzen arloan jardungo dute, esaterako, batzordeek.

Aho batez onartu zituzten batzordeen arautegiak, joan zen asteko plenoan.

Herritarrek eta herriko elkarteen ordezkariek osatuko dituzte aholku batzorde horiek. Datozen asteetan eratuko dituzte.

Dagokien arloko aholkularitza batzordean parte hartzea proposatzeko, gonbidapen gutuna bidaliko die udalak herriko elkarteetako ordezkariei. Udaleko alderdi politiko bakoitzeko ordezkari batek eta norbanakoek ere hartuko dute batzordeetan parte. Gutxienez, urtean bitan batuko da batzorde bakoitza.

Udal ekipamenduen eta ekintzen arloan jardungo dute, esaterako, batzordeek

Aho batez onartu zituzten batzordeen arautegiak, joan zen asteko plenoan

Bilduko Aitor Azuetak esan zuenez, "parte-hartzearen bidean urrats bat da" aholku batzordeon sorrera. Udalean jorratzen diharduten gaiei buruzko herritarren ekarpenak jasotzeko apropos ikusten dituzte batzordeok. Elkarteen arteko harremanak sendotzeko eta "herri kohesioa" bultzatzeko ere egoki ikusten dituzte.

EAJko Sarai Mimenzak ere bai: "Konforme gaude batzordeok sortzeko helburuekin, eta beharrezko ikusten dugu parte-hartzea. Positiboa da udalarentzat eta herriarentzat". ■ I.E.

Autobusa beteta badago, Alsak bat gehiago ahalbidetuko du

Udalaren eskaerak aintzat hartuz, Alsa autobus konpainiak hainbat hobekuntza egingo ditu zerbitzua hobetzeko helburuagaz.

Alsak jakinarazi dienez, hitzarmen bat adostu dute Gasteizko Audisa eta Legutioko Garaigordobil autobus konpainiekin. Horrela, autobusa beteta datorren aldiro, beste bat ipiniko dute errefortzurako, gehienez bost minuturen barruan.

Horregaz batera, autobus linea horien arduradunek telefonoak udalaren eskura jarri dituzte. Beraz, edozein gertakizunen aurrean, erabiltzaileek udalera deitu ahal dute argibide eske.

Gainera, autobus erabiltzaileei bidai-txartelen kudeaketa erraztu guran, bono berezi bat aterako dute. ■ J. D.

Eguztenean, San Antonio Eguna ospatzera Urkiolara

Nekazaritza eta ganadu azoka burutuko dute goizean, eta bertso saioa izango da eguerdian

Ekainaren 13an ospatuko dute San Antonio Eguna Urkiolan. Jaieguna ospatzeko, besteak beste, nekazaritza azoka eta ganadu erakustaldia antolatu dituzte, ohiturak agintzen duenez. Abadiñoko Udalak eta Ganadu elkarteak prestatu dute azoka hori.

Anjel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluze bertsolariek kantatuko dute, eguerdian

Bilboko gotzain nagusiak gidatuko du San Antonio eguneko 12:00etako meza nagusia, eta Lekeitioko abesbatzak emanaldia eskainiko du, ondoren.

Anjel Mari Peñagarikano eta Aitor Mendiluzek bertso saioa eskainiko dute ekainaren 13an, eguerdian, Urkiolan, eta trikitilariek alaituko dute giroa, gero.

Bestetik, Aramaiorako Errogatiba, eta Corpus Christi jaia ospatuko dute, bihar. ■ I.E.

BERBAZ >



Martxelo Otamendi•

- Berria egunkariko zuzendaria
- Tolosa, 1957

Zaloa Fuertes

"Paperetik teknologia berrietarako trantsizioa, negozioan ez da eman"

'Zure ziztada behar dugu' lemapean, Berrialaguna kanpainaren berri eman du Martxelo Otamendik

Durangaldeko ziztadaren bila etorri da eguaztenean Martxelo Otamendi Berria egunkariko zuzendaria Plateruenera. Berria taldeak bizi duen egoera ekonomiko larriaren berri eman du.

Zeintzuk dira Berrialaguna kanpainaren izaera eta helburuak?
Aspaldiko urte hauetan krisi handia nabaritu dugu komunikabideen inguruan. Alde batetik, iraultza teknologikoa gertatu da informazioa ematerako orduan, pantailaren bidez, ordenagailuetan, ipad eta horrelakoetan. Beste alde batetik, krisi ekonomikoa etorri da. Publizitate gutxiago saltzen da orain. Pentsatu genuen garrantzitsua zela, guk hartu beharreko neurriak hartzeaz gainera, komunitate bat proiektu honen inguruan inplikatzea. Pentsatzen badute garrantzitsua dela euskal komunikabide sendo bat izatea, ea denon artean diruz eta berotasunez lagundu ahal dugun.

Zein da jasotzen ari zareten erantzuna?
Oso harrera ona izaten ari gara. Herri askotatik deitzen ari dira. Aste batzuk badaramatzagu batetik bestera egoera azaltzen. Badago jendea jabetu dena egoeraren larriaz eta laguntzeko prest daude. 5.000 ziztadazale topatzea zen gure asmoa eta dagoeneko 3.000tik gora goaz. Planifikatu genuena baino hobeto doa. Hala ere, kosta egiten da geroz eta jende gehiago dagoelako krisiak ukitua. 360.000 euro ematera konprometitu dira. Ea milioi erdira heldu gaitezkeen.

Zein da zehazki Berria Taldearen egoera?
Akziodunen batzarrean gure kontuen berri eman dugu. Guk 2008. urtean langileen artean irabaziak banatu genituen. Orain dela gutxi publizitate jaitsiera handia izan dugu. Gure publizitatearen zati handi bat erakunde publikoak dira, udaletxeak, diputazioak eta Jaurlaritza, eta baita entitate finantzieroena ere. Arlo horietan murrizketa handiak egin dituzte eta gurean asko nabaritu da.

Zein neurri hartuko duzue?
Lehenago hamalau lanpostu murriztu genituen, banaketa enpresarenak. Azken urteotan orrialde kopurua murrizten joan da. 56, 48, eta orain 40 orrialde ditugu. Baina, kaleratzerik ez da egon. Batzuk lana utzi dute beste nonbaitera joateko. Hamabi lanposturen murrizketa proposatu diogu orain langile taldeari.

Komunikabideen etorkizuna Interneten dagoela diote batzuek.
Teknikak izugarrizko aurrerapena egin du. Munduko teknikoek asmatu dute lehen paperean ematen zen informazioa orain pantaila batean ematen eta aurrerapen teknologiko handiak eman dira. Garapen horrekin batera ez da negozioaren garapenik eman merkatu tipologian. Negozioa paperean gertatu da. Paperetik teknologia berrietara eman den trantsizioa negozioan ez da eman. Beraz, trantsizio garai batean gaude. Negozioa argitu artean lanean jarraitzea da gura duguna. Horrexegatik ahalegintxo hau eskatzen gabiltza, Berria taldea aurrera ateratzeko. Inspirazioak lanean harrapatu gaitzala.

Berria laguntzeko Durangaldetik zer egin daiteke ?
Beste herri batzuetan egiten dabiltzan bezala saiatu komunitatea sortzen. Saiatu euskaltzaleei gure egoeraren berri ematen. Euskal Herriak komunikabide sendoak behar dituela gizarteratzen lagundu. Eskerrak eman gurako nizkieke Anbotori eta baita Berbaro taldeari ere emandako babesarengatik, eta ea denon artean proiektua aurrera ateratzen dugun.

Puntako hedabidea izateko zein baldintza behar dira?
Kalitatea eta kalitatea behar da. Egipton zerbait gertatzen ari bada, Auzitegi Nazionalean epaiketa bat badago, kazetari bat hantxe dago uneoro Internetez informatzen. ■ J. Guenetxea

"5.000 ziztadazale topatzea zen gure asmoa eta dagoeneko 3.000tik gora goaz"

"Komunitate bat proiektu honen inguruan inplikatzea da helburua"

@anbotokultura

KULTURA

ITSUA ETA OMZO MF > HIP-HOP MUSIKARIAK

Aftitud jaialdia: elkartasuna eta hip-hop musika eskutik helduta

Hip-hop eszenako hamahiru talde batuko dira zapatuan Plateruenan; Omzo MF eta Itsua ezizeneko musikariek antolatu eta aurkeztu dute ekimena

Nondik sortu da zapatuko jaialdiaren ideia?

Omzo MF: Gure erokeriatxoetako bat izan da. Jaialdiaren Aftitud izenak adierazten duenaren haritik gura izan dugu antolatu jaialdia. Jarrera bat bultzatu gura izan dugu: eragiten diguten arazoetan afrikarrok inplikatu gaitezen bultzatu gura dugu.

Itsua: Hona emigratu duen jendeari ikusarazi gura diogu hemendik euren herrialdeetako jendearen alde ere egin dezakegula. Beharrezkoa ikusten dugu afrikarren arteko elkartasuna.

> "Lehenengo jaialdi honetako dirua Somaliara bidaltzea erabaki dugu"

Somaliara bideratuko duzue jaialdian batutako dirua.

Omzo MF: Ni Senegalgoa naiz, eta han ere arazo mordoa daukagu. Baina bai, lehenengo jaialdi honetan batutako dirua Somaliara bidaltzea erabaki dugu. Urgentzia gehien duten lekua dela uste dugulako aukeratu dugu.

Itsua: Acción Contra el Hambre GKEari emango diogu zapatuan batuko dugun dirua. Kontzertuen aurretik, hain zuzen, GKE horretako ordezkari batek azalduko du Somalian zer egoeratan dauden.

Zelan elkartu duzue jendea?

Itsua: Han eta hemengo jende asko elkartzea lortu dugu, eta elkarrekin gozatzea da jaialdiaren beste helburuetako bat. Ez dugu planteatu kontzertua talde bakoitzak bere burua luzitzeko. Hogei minutuko tartean joko du talde bakoitzak. Datozen talde guztiak dira lagunak edo lagunen lagunak. Ekuador, Kolonbia, Senegal, Ginea, Mauritania, Angola, Euskal Herria eta Espainiako hip-hop egileek hartuko dute parte Plateruneko elkartasun jaialdian.

Aurkeztu jaialdian parte hartuko duten taldeak.

Itsua: Bii Boor Black eta Omzo MF hemen bizi diren senegaldarrak dira; Durango, Berriz eta Ondarroakoak Los Sucios eta DIBeko kideak; gasteiztarrak dira Indarrap eta Clan The Warriorz; Gineakoa da Moktar; latindarrak eta afrikarrak elkartzen dira La Sello Conexion taldean; Angolakoa da Betto Snay... Nazioartean esangura duen taldea, Pachamama Crew ere etorriko da Durangora; eta ni eta nire anaia, Cayado Bros ere ariko gara.

Jende gehiagok ere hartuko du parte, dj eta aurkezle.

Itsua: Bai, dj lanetan Sabio santurtziarrak, Jackiek eta neuk jardungo dugu; eta Colomboyk aurkeztuko du jaialdia. Kontzertuaren ostean, gainera, mikroa zabalik utziko dugu parte hartu gura duenarentzat. Gaua borobiltzeko, funky eta soul musikaren saio bat ere izango dugu.

Lan handia izan da jende hori guztia elkartzea?

Omzo MF: Jaialdi txikiagoa izango zela uste genuen, baina handitzen joan da. Oso pozik gaude.

Hip-hopa ezagutaraztea ere bada jaialdiaren helburu?

Itsua: Bai, eta esango nuke gizarte zerbitzua egiten dugula jaialdiagaz, gainera. Batetik, hau gustatzen zaion jendeari begira; bestetik, ezagutzen ez duenari eta mundu honetara gerturatu gura duenari. Hip-hoparen aitzakiagaz, beste kultura batzuk ere gerturatzen dizkiegu entzuleei.

Omzo MF: Guztiz sinbolikoa da bost euroko sarrerarena. Aftitud jaialdi hau lehenengoz abiatuta bilatzen duguna da hemendik musikagaz lotutako beste proiektu batzuk martxan jarri ahal izatea. Gure errealitateaz egiten dugu berba gure kantetan, eta kanta guztietan aldarrikatzen dugu aurrera egiteko indarraren beharra, afrikarrok geure bidetik aurrera egiteko beharra. ■ I. Esteban

Jaialdiaren antolatzaileak, ezkerretik eskumara: Sabio, Colomboy, Itsua eta Omzo MF.

Omzo MF eta Itsuaren elkarlanaren fruituak

Itsua durangarrak (Arkaitz Cayado) kudeatzen du Beatsalad ekoiztetxea, eta hor grabatu eta nahastu dute Itsua berak eta Omzo MF senegaldarrak (Omar Thoir) azken diskoa elkarlanean. Uda osterako gura dute prest eduki.

Disko hori eta Aftitud jaialdia legez, beste hainbat proiektu ere badarabiltzate durangarrak eta senegaldarrak buruan. Senegalgo esaera bat beti gogoan dutela diote: "Bihotzetik ateratakoa beste bihotz batera ailegatzen da beti".

Dj-ak

Itsua, Sabio eta Jackie

MC-ak

Bii Boor Black, Los Sucios, Indarrap, La Sello Conexion, 2B aka Gunflow, Betto Sany, Omzo MF, 5JC & Pana (Pachamama Crew), Cayado Bros.

BERTSOLARITZA>

Euskal Herriko eskolarteko finalean ariko da Altube

Bigarren postuan sailkatu zen Txaber Altube; Itxaro Juaristi abadiñarrak eta Garoa Angiozar berriztarrak ere kantatu zuten Bizkaiko finalean

Hamalau urtera artekoen mailan jardun zuen Txaber Altube abadiñarrak. Bigarren postua lortu zuen. Iker Larizgoitia mungiarra izan zen lehenengoa. Epaimahaiaren berbetan, "ideietan argi eta erantzunetan bizi-bizi" aritu zen.

Joan zen barikuan, Bilboko Carmen aretoan jokatu zuten Bizkaiko eskolarteko bertsolari txapelketaren finala. Adinaren arabera banatutako bi taldetan lehiatu ziren: hamalau urtera artekoak batetik, eta hamalautik hamazortzira artekoak, bestetik. Maite Berriozabal berriztarra ibili zen gai-jartzaile lanetan Bilbon.

> Hamalau urtera artekoen mailan jardun zuen Txaber Altube abadiñarrak

Adinaren araberako sail bietan, irabazleekin batera, bigarrenek ere lortu dute Euskal Herriko finalerako txartela; beraz, Euskal Herriko Eskolarteko Txapelketaren finalean Altubek ere kantatuko du, ekainaren 16an, Agurainen.

Txaber Altube abadiñarragaz batera, Durangaldeko beste bertsolari bik ere kantatu zuten Bilboko finalean: Itxaro Juaristi herrikideak eta Garoa Angiozar berriztarrak. Neska bi horiek, ordea, ez zuten final nagusirako sailkatzerik lortu. ■ I.E.

KANTAGINTZA>

Bizkaiko kantu finalean bigarren izan da Durangoko Xaramel taldea

Euskal Herriko kantu txapelketaren finalean ez da Durangaldeko inor ariko

Bilbon jokatu zuten Euskal Kantu txapelketaren Bizkaiko finala, ekainaren 3an. Lekeitioko Zehatz taldeak jaso zuen taldeen saileko lehenengo saria. Sail horretako bigarren saria jaso zuen Durangoko Xaramel taldeak.

Durangoko Geu Be elkarteko 30 kantariei, gainera, txapelketan egindako lana aintzatesteko sari berezia eman zioten antolatzaileek. *Guk euskaraz* kanta eskaini zuten Geu Be taldekoek Bilboko finalean.

> Ekainaren 16an, Donostian jokatuko dute Euskal Herriko kantu txapelketaren finala

Ekainaren 16an, Donostian jokatuko dute Euskal Herriko kantu txapelketaren finala. Bizkaiko ordezkari legez ez da Durangaldeko kantaririk egongo. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Jose Martin Urrutia 'Txotxe'
Irakaslea

Ongi etorri Galeano!

Ez da egun asko Eduardo Galeano idazle uruguaiarra Bilbon egon dela. Sari bat jasotzera eta bere azken liburua aurkeztera etorri zitzaigun. Aitortu behar dizuet betidanik mirestu izan dudala eta sarritan, askotan, erabili eta itzuli izan ditudala bere testuak. Kapuscinskik Afrikako ateak zabaldu zizkidan bezala; Jack Londonek Iparramerikako eremu amaigabeak eta bertan sortzen ziren gatazka sozial zein identitarioak; Galeanok, Hegoamerikan eta munduan gertatutakoak hobeto ulertzen erakutsi dit.

Historiaren konplexutasunari uko egin barik, kontrara, berori aldarrikatuz, ikuspegi berri bat oparitu dit, digu. Ikuspegi horretan, herri txikiek, pobreek, baztertuek euren tokia errekuperatu dute, edo hobeto esanda, ukatu egin zaien argia izan dute historiako Galeanoren liburuetan.

Hegoamerika bizikletaz zeharkatzen ari ginenean *Las Venas Abiertas de America Latina* nola eskuratu nuen oraindik ere gogoan dut. Potosin (Bolivian) geunden eta, larunbatetan egiten zen azoka batean, han zeuden Galeanoren liburuak. Liburuak kopiak ziren, berriak oso garestiak ziren-eta. Ondoko terraza batean jarri eta irakurtzen hasi nintzen. Galeanok zorrotz eta umorez inongo gida zein historiako liburuetan aurkitu ezinezkoa zena kontatzen zigun, beste ikuspuntu bat, begi bistan genuenari beste zentzu bat emanez.

Bilbokora bueltatuz, Galeanok liburu elektronikoen kontra zegoela adierazi zuen, betiko formatua gustukoagoa zuela. Txirrindulari-bidaiari honi orain dela gutxi *e-book* bat oparitu diote, alforjetan liburuen gainzama hori arindu nahian. Egia esaten badut, ni, bera bezala, ez naiz oso teknologia berrien zalea, baina bizikleta gainean pisu gehigarri hori igartzen da. Zer egin?

Tira, badut oraindik hilabete ezbai honi irteera emateko, eta eramatekotan bere beste adierazpen batekin bat eginez, zin egiten dut gauero irakurtzen dudana ozenki egingo dudala hitzek izarrekin jolastu dezaten.

Ongi etorri Galeano!

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net
EKAINAK 8 22:00etan
GAZTA ZATI BAT
DOKUMENTALA.Sarrera: 5euro.
EKAINAK 9 20:00etan
AFTITUD. SOMALIAREN ALDEKO
HIP HOP JAIALDIA.Sarrera: 5euro.
EKAINAK 15 21:30ean
DURANG(H)OTS JAM SESSION
KONTZERTUAK.Sarrera doan.
EKAINAK 16 22:00etan
IHESKIDE
KONTZERTUA.Sarrera: 5euro.
Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

BURNIA Aukeran Dantza Taldea
Ekainak 8 • 22:00
San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz liburu-denda
artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

MUSIKA> SEPTEMBER BOY

“Melodiak eta erritmoak gozatzea da punk rock amerikarraren oinarria”

Apple Pop musika lehiaketara sailkatzea lortu dutela jakinarazi diote taldeko baxujoleari, entsegu lokalera sartu denean; September Boy izeneko diskoa aurkeztuko dute zuzenean hiru taldekideek Durangoko Sweet & Vicious tabernan, bihar

Zer da Apple Pop lehiaketa?
Cristian Mediavilla: Maketa lehiaketa bat da. Hainbat estilotako taldeek parte hartzen dute bertan.
Ibon Alonso: Villaviciosan (Asturias, Espainia) antolatzen dute. Bertako jaietan jotzea eta 1.000 euro dira sari nagusia. Finalean jarduteko hiru talde aukeratzen dituzte, eta gurea da hautatu dutenetariko bat.
Edgar Gomez: Ia epez kanpo ibili ginen kantak bidaltzeko, baina badirudi zortea izan dugula. Irabaztera joan behar dugu!

Zer aurkeztu duzue lehiaketara?
I.A.: Disko berriko pare bat kanta eta bertsio bat aurkeztu ditugu.

Ohiturarik baduzue lehiaketetara aurkezteko?
I.A.: Azken astean gabiltza lehiaketen inguruko informazioa bilatu eta guztietara aurkezten! Madril, Asturias eta Bilboko lehiaketetara ere aurkeztu ditugu kantak.

Zer ibilbide izan duzue aurretik musikan?
C.M.: Restart taldean jo genuen aurretik elkarrekin.
I.A.: Talde harekin ere Espainiako lehiaketa baten finalera ailegatu ginen eta Madrilen jo genuen.

Zer gertatu zen Restart taldea desegiteko?
I.A.: Bost ginen, baina lan kontuak direla-eta Madrilera joan behar izan zuen batek, eta Los Angelesen dago beste laguna. Udalaren lokal honetan entseguak egiteko aukera geneukanez, September Boy proiektua martxan ipintzera animatu ginen hirurok.
E.G.: Ondo pasatzeko gogoz elkartu ginen berriro, izan ere, Restart taldea deseginda, 2009tik 2011ra egon ginen elkarrekin jo barik.
I.A.: Hiru hilabete eman genituen September Boyren lehenengo kanta egiteko. Lehenengo diskoan batu ditugun beste laurak errazago atera zaizkigu.

Aurreko taldeagaz ez dauka zeikusirik Septeber Boyk?
I.A.: Antzik badauka, baina, aurreko proiektua popera zuzendurikoa zen gehiago.

“Hemendik denbora batera deskarga irekirako aukera ere eman gura dugu”

Kantak zuen webgunean ipini dituzue entzungai, ezta?
I.A.: Bai, gura duenak entzuteko aukera eskaini dugu gure webgunean. Hemendik denbora batera deskarga irekirako aukera ere eman gura dugu.

Zelan hartu du jendeak diskoa?
I.A.: Orain hiru aste inguru zabaldu genuen webgunea, eta 1.400 entzunaldi dauzkagu dagoeneko.

Lokal honetan grabatu dituzue diskoko kantak, ezta?
I.A.: Bai, dena egin dugu hemen eta etxean, eta oso pozik gaude lortu dugun soinuagaz.
E.G.: Ibonek soinu ikasketak egin ditu, eta oso lagungarri izan da hori diskoa grabatzerakoan.
I.A.: Hiruron lana izan da. Oso ondo banatu dugu lana: denok kolaboratu dugu.

Zelan eskuratu ahal da diskoa?
I.A.: Webgunean eskaintzen dugu, batetik; eta kontzertuetan ere ipiniko dugu salgai.

Zer musika duzue gogoko?
C.M.: Kaliforniako punk fresko eta uda girokoa dugu gustoko.
I.A.: 90eko hamarkadan oso modan zeuden *amerikanadak* gustatzen zaizkigu... Ez gara asko berriztu! (barrez)

“Melodiak eta erritmoak gozatzea da musika estilo honen oinarria”

Ingelesez kantatzen duzue. Zelako gaiei buruz?
I.A.: Bai, punk rock amerikarra ingelesez ateratzen zaigu.
C.M.: Errazagoa egiten zaigu ingelesez egitea, monosilabo eta hitz laburragoak daudelako ingelesez.
E.G.: Musika mota honek, gainera, ez dauka mezu oso sakon edo poetikorik, eta beraz, hizkuntzarena ez da arazo.
I.A.: Melodiak eta erritmoak gozatzea da punk rock amerikarraren oinarria. Gure kantetako gaiak, neskak, lagunak, jaia, uda, alkohola, estralurtarrak eta abar dira.
E.G.: *Reaction* kantak bestelako ukitua dauka: sakonagoa.
I.A.: Gerra bizi duten bi lagunen arteko maitasun istorioa da.

Kaliforniako punk rock musika hori entzuten duzue gehien?
I.A.: Bai. Esaterako, 1182 taldearen oso zalea naiz ni. Baina popa, rocka, punka, elektronika... Denak ditut gustoko.
C.M.: Ni nahiko itxia naiz horretan: punk amerikarra eta horren antzekoa den hardcore apur bat entzuten dut. Rocka, orokorrean, oso gustoko dut.
E.G.: Askotariko musika entzuten dut nik...

Baina, Bad Religionen kapela daramazu!
E.G.: Bad Religion umetatik entzun dudan taldea da, baina bestelako doinuak ere gustoko ditut.

Zapatuko kontzerturako zer zabiltzate prestatzen?
I.A.: Denbora daramagu kontzerturako egunero entseguak egiten. Bost kantak eta bertsio bereziak joko ditugu: kanta ezagunak punk estiloan. ■ I. Esteban

ARGAZKIGINTZA>

Zabaldu dituzte Begira jaialdiko erakusketa bi

Gran Hotel Durangon aurkeztu zuten argazki jaialdia

Leo Simoes jaialdiaren koordinatzaileak eta Andoni Iruarrizaga Durangoko Udaleko zinegotziak egin zuten Begira argazki jaialdiaren bigarren edizioaren aurkezpena. Joan zen barikuan inauguratu zuten jaialdiako lehenengo erakusketa, Durangoko Arte eta Historia Museoan: Federico Clavarino italiarraren *Ukraina Passport*. Granadako El Trapiche argazkigileen kolektiboko bost sortzaileren erakusketa ere ikusgai dago Art Leku galerian. Guztira, bost erakusketa izango dira aurrerantzean publikoarentzako zabalik. Konferentziei eta formazioari ere tarte bat egingo diote. ■ I.E.

25 urte gazteei ilusioa pizten eta lanerako ateak zabaltzen

Durangaldeko Lanbide Ikastetxeak 25 urte egin ditu aurten, eta gaur egun zazpi espezialitate eskaintzen ditu; horregaz batera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua ateratzeko laguntza ere ematen du

Orain 25 urte sortu zutenetik 1.500 gazte inguruk ikasi dute Durangaldeko Lanbide Ikastetxean. Zentroak zazpi espezialitate eskaintzen ditu eta horiek dira eguneroko jardunaren muina, baina urterik urte garatzen duten hezkuntza programa askoz zabalagoa da.

Munduan beraien tokia aurkitu ezinik dabiltzan gazte askok azken erremediotzat ikusi izan dute Lanbide Heziketa. Baina gazteen eta guraso askoren ikuspegi hori aldatu egin da apurka-apurka. Lanbide Heziketa ez da ezin dutenen azken helmuga, aukera berriak zabalduko dituztenen abiapuntua baino. Horretarako, irakasleek psikologotik ere behar dute apur bat, gazteei ilusioa pizteko. Berjabetze prozesu horretan, zentroaren eskaintzak ere berebiziko garrantzia du. Espezialitateez gainera, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatua lortzeko aukera ere eskaintzen du Durangaldeko Lanbide Ikastetxeak. Aukera hori motibagarria da hainbat gazterentzat, Batxilergorako zein erdi mailako ziklo baterako atea irekitzen dietelako.

Ikasleen %85, lanean

Batez ere arlo praktikotik bideratzen dituzte espezialitateak. Zentroko ordezkariek onartzen dutenez, krisiaren eraginez lana topatzen duten gazteen kopurua jaitsi egin den arren, urte batzuetan ikasleen kontratazio maila %85era heldu da. Hamasei eta hamazortzi urte arteko gazteek jasotzen duten hezkuntza urte bikoa izaten da, eta ikasketak amaitzean lortzen duten titulua Kualifikazioko 1. Maila da.

Gaur egun eskaintzen dituzten espezialitateak honako hauek dira: egur-arotzeria, arotzeria metalikoa, elektrizitatea, iturgina, lorezaintza, hostalaritza eta pintura.

Hilaren 14an, ekitaldia

Ekainaren 14an, datorren eguenean, 25 urteak ospatzeko ekitaldia egingo dute lanbide ikastetxean bertan. Ekitaldi horretan parte hartuko dute Oskar Zarrabeitia Durangaldeko Amankomunazgoko presidentea eta Jose Luis Elorza Hezkuntza Saileko ordezkaria.

Inguruko udaletxeetako, enpleguen inguruko erakundeetako eta hezkuntza zentroetako hainbat ordezkari ere batuko dituzte, beste hainbaten artean. ■ J.Derteano

"Espezializazioagaz batera graduatua lortu ahal da"

Sandra Begoña eta Jose Antonio Uriarte irakasleen ustez, Lanbide Ikastetxea bide berriak irekitzeko abiapuntua da

Jose Antonio Uriarte Durangaldeko Lanbide ikastetxeko irakaslea da, sorreratik. Sandra Begoñak hiru urte daramatza eta irakasle berriena da. Euren esperientziak azaldu dituzte eta etorkizuneko erronkei buruz berba egin dute.

Sorreratik irakasle dabilen batek, ordukoa zelako oroitzapenak gordetzen ditu?

Jose Antonio Uriarte: Ezerezetik abiatu ginen eta apurka-apurka ideia bat bakarrik zena errealitate bihurtu zen. Hasieran Elorrion zegoen ikastetxearen eraikina eta eskola publikoaren beheko solairu batzuk hartzen zituen. Lau tailerrekin hasi eta, apurka, zortzira heldu ginen.

Zergatik hartu zen Elorriotik Durangora aldatzeko erabakia?

J.A.U.: Urterik urtera eskaintza hobetzen ari ginen, baina horiek garatzeko azpiegitura egokiak falta genituen. Horregatik, oso garrantzitsua izan zen Durangoko azpiegitura berrietara etortzeko urratsa. Programa osoari balio erantsia eman zion.

Tailerrez gainera ezagutza orokorra ere lantzen duzue.

J.A.U.: Nire ustez ikastetxeak duen arrakastaren gakoetako bat da. Hezkuntza orokorra eta espezializatua uztartzen saiatzen gara. Irakasten denaren pisurik handiena tailerrek hartzen dute, baina kultura orokorra ahaztu gabe. Ikasleek hamasei-hamazortzi urte artean dituzte. Adin konplikatua da. Hemen bigarren aukera bat bilatzen dute eta itxaropenak asetzen saiatzen gara. Lanbide Ikastetxean espezializaziogaz batera eskola-graduatua lortu ahal da. Ikuspegi hori gurasoengan txertatzea ere garrantzitsua da. Pentsatzen dute: "Hain gazterik hasiko dira lanean?". Bigarren bide hori irekita, arnasa hartzen dute.

> "Marginatuen ikastetxea dela uste dute batzuek. Ez da horrela"

Azken hiru urteak bakarrik ezagututa, zer du nabarmentzeko irakasle berrienak?

Sandra Begoña: Hasieran jendeak ez zuen garbi Durangaldeko Lanbide Ikastetxea zer zen. Azken urteetan zentroetako orientatzaileekin egon gara, eta ikastetxeko jarduna ezagutzera emateko ahalegina egin dugu. Hala ere, gurasoen arloan oraindik badago zeregina; etorkinen edo marginatuen ikastetxea dela uste dute batzuek. Ez da horrela. Ikasten jarraitzeko irakaskuntza arautuan dagoen beste bide bat da. Ostean, Batxillergora edo erdi mailako ziklo batera joan zaitezke. Bidea ez da hemen amaitzen. Asko dira eskola-graduatua ateratzen dutenak. Hainbat ikasle horregatik etortzen dira.

Zuk zeuk zelan bizi izan dituzu azken hiru urteak?

S.B.: Hasi nintzenean harritu ninduena eta oraindik harritzen nauena da ikasle ohiak bisitan etortzen direla, urteak joan eta urteak etorri. Zelan gauden galdetzen digute; eurak zertan dabiltzan… Titulurik lortu ez duten asko ere etortzen dira. Horrelakorik ez dut beste inon ezagutu.

Zergatik ote da?

S.B.: Normalean aurretik egondako ikastetxeetan esperientzia txarrak bizi izan dituzte eta ikasleak askotan motibazio barik etortzen dira. Lehenengo hileetan motibazioa lantzen saiatzen gara. Ilusioa berreskuratuta askoz errazago egiten da irakastea eta ikastea.

EKINTZAILEEN ESPERIENTZIAK

Ikasle ohiek, bai hasierako sasoikoek eta bai oraintsuago amaitu dutenek, denek dituzte oroitzapen onak

Durangaldeko Lanbide Ikastetxeak 11 espezialitate eskaintzen ditu. Horietako zazpitan ikasi duten ikasle ohien iritziak entzunda, gomuta onak dituzte. Batzuek ikastetxeak Elorrion zuen eraikina ezagutu zuten; beste hainbatek oraintsu amaitu dituzte euren ikasketak.

Jasotako trebakuntza oso baliagarria izan zaiela nabarmendu dute guztiek eta, gehienek, irakasleen inplikazioa azpimarratu dute. Gainera, batzuek lanbide ikastetxearekiko lotura mantentzen dute eta ikasle gazteei praktikak egin eta apurka ofizioa ikasteko aukera eskaintzen diete euren enpresetan.

Asier Morato (Durango)
Iturgina

"Ehuneko ehunean baliatu dut jaso dudan trebakuntza"

Asier Moratok hamasei urte daramatza iturgin lanean. Elorrion egin zituen ikasketak, sasoi hartan lanbide ikastetxearen egoitza hantxe zegoelako. "Ehuneko ehunean baliatu dut jasotako trebakuntza". Orain bere enpresa propioa du. Bezeroen harretari garrantzia handia ematen dio: "Zaila da agenda zehaztua izatea. Etxe baten itogin handi bat sortu bada joan beharra dago. Garrantzitsua da bezeroekin hartueman konstantea izatea".

"Praktiken bidez ostalaritza zer zen ikusi nuen"

2005ean amaitu zituen urte biko ikasketak eta hiru hilabetez Plateruenean egin zituen praktikak Itsaso Grandek: "Praktiken bidez ostalaritza zer zen ikusi nuen; oso baliagarriak dira". Orain bost urte daramatza Sabeco supermerkatuko kafetegian. Zerbitzari batek eginbehar asko dituela dio: "Bezeroek zerbitzatzen ikusten gaituzte, baina ikusten ez diren hamaika zeregin ere baditugu. Eta zeregin guztiak egunean eraman behar dira".

Itsaso Grande (Abadiño)
Ostalaritza

"Talde jatorra ginen eta maisuek lagundu ziguten"

Durangaldeko Lanbide Ikastetxean ikasi zueneko gomuta onak ditu Pedro Regatosek: "Elorrion zegoen ni egon nintzenean. Talde jatorra ginen eta maisuek ere asko lagundu ziguten. Askorako balio izan dit orduan ikasitakoak". Hamazortzi urte daramatza pintore lanean. Noizean behin, lanbide ikastetxeko ikasle gazteak hartzen ditu praktikak egiteko: "Batzuek gurekin jarraitu dute, beste batzuek ez, baina etorritako guztiekin ez dugu inolako kexarik".

Pedro Regatos (Elorrio)
Pintorea

Arkaitz Perez (Iurreta)
Arotzeria metalikoa

"Pertsonalki ere inplikazio handia zutela ikusi nuen"

Orain hamar bat urte amaitu zituen Arkaitz Perezek arotzeria metalikoko ikasketak: "Maisuak oso profesionalak ziren eta pertsonalki ere inplikazio handia zutela ikusi nuen. Oraindik ere deitzen diet noizean behin aholkuren bat behar dudanean, eta laguntzen didate". Horrez gainera, "eskolako titulua edo erdi mailako titulua ateratzen ere laguntzen dute; apurka, hezkuntza integrala jaso dezakezu, eta horrek asko balio du etorkizunean".

Eneko Diaz (Elorrio)
Lorezaintza

"Garai hauetan lanpostu finkoa izatea asko da"

Lanbide Ikastetxean trebakuntza jaso eta segituan enpresa batean lanean hasi zen Eneko Diaz. Pare bat kontraturen ostean lanpostu finkoa eskaini zioten: "Garai hauetan lanpostu finkoa izatea asko da". Urte biko formazioa oso baliagarria izan zaiola dio eta irakasleek erakutsitako gertutasuna azpimarratu du: "Gustura ibili nintzen eta asko ikasi nuen. Lanbide ikastetxeak hogeitabost urte egin ditu eta gutxienez beste horrenbeste egin ditzala opa diet".

"Etorkizunari aurre egiteko prestatzen zaituzte beti"

Lanbide ikastetxeko trebakuntza jaso zuen lehenengotarikoa izan zen Servando Reinoso. Onartu duenez, "sarritan bestelako ikasketak burutu nahi ez dituen jendea batzen da eta, horregatik, etorkizunari aurre egiteko prestatzen zaituzte beti". Reinosoren ustez, "arlo praktikoak garrantzia handia hartzen du eta asko ikasten da". 1998az geroztik negozio propioa du. Krisia igarri duela azaldu du baina oraingoz lana baduela eta ezin dela kexatu.

Servando Reinoso (Durango)
Egur-arotzeria

"Klase praktiko asko dago eta eskertu egiten da"

"Ez dira klase teorikoetara mugatzen. Klase praktiko asko dago eta hori eskertu egiten da, azken batean, horrela ikasten delako ofizioa". Sukaldaritza bere adiera zabalean irakasten dutela dio Joseba Martinezek. "Pastelgintza, okintza, oinarrizko sukaldaritza... denetarik ikasi genuen". Irakasleei buruz zera dio: "Hamar urte joan dira ikasketa horiek amaitu nituenetik eta oraindik hartuemana mantentzen dut irakasleren batekin".

Joseba Martinez (Durango)
Sukaldaria

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Athleticen bandera

Athletic dala-eta, gure ikastetxien, beste leku askotan moduen, Athleticen banderak ipini genduzen hainbat tokitan.

Euretariko bat, monjen komentura doaneko berjan ipini gendun. Hobeto esanda, ipini genduzen, bakoitza 7metrotako banderak zien alderdi bakoitzien ipini genduzen-eta.

Barrukaldetik ipini genduzen apropos, iñori handik kentzeko "ideiarik" ez emoteko... Baia hala ta guztiz be ein dabe.

Barikutik zapatureko gabien lapurtu eiozkuez. Bai, lapurtu, atie itxita egoalako ta eroan dauzenak barruen egoan zeozer "eroan" deuelako.

Oin dala astebete be, bat eroazkuen, baina herriko andra batzuei esker, udaltzainek errekuperatu ahal izen eben.

Ez dau horretarako eskubiderik! Zelako asmoarekin? Zertarako?

Olatz Varela

Klik batean @

Kartela erdaraz

Durangar batek argazki hau bidali du asteon Anbotora. Euskal Astean Durangoko Udalak Sanagustinen jarri duen kartela kritikatu gura izan du:"Batua edo bizkaiera erabiltzeko zalantzan egon eta azkenean, gaztelania aukeratu dute".



Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta
astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

■Sei hankako mahaia

Dani Maeztu **Aralar**

Durango gobernu gabe

Durangoko EAJ autobideko kontrako erreitik doa furgoneta batean, udaletxeko zortzi zinegotziak barruan dituela. Aurreko lerroan doa alkate andrea, eskumako eserlekuan bolantea hartuta; eskuman baitago EAJren furgonetaren bolantea. Berak badu aurpegiera serioa, gidariak serio joan behar duelako, baina atzean doazen zinegotzi guztiei poztasun lañoa nabari zaie aurpegietan. Irribarretsu, autopistako kontrako erreitik aurrera, norabide zuzenean doazen auto guztiei keinuka. Hamaika auto gurutzatu dituzte eta oraindik ez dira konturatu norabide okerrean doazela. Aitzitik, errua beste autoek dutela komentatzen da furgoneta barruan.

EAJren udal kudeaketaren irudia da aurreko hori. EAJk udalbatzan dituen zinegotziak hartu eta herritarrik gabe herritarren izenean, kontrako norabidean joatera tematzen da, bolantea eskuinean duen furgonetan. Konturatzeko garaia du, ordea, oposizio guztiak lepoa eman diola egiten duen kudeaketa horri, eta oposizio guztiak elkarrekin herritar gehiago ordezkatzen dugula. Kabestruen antzera aurrera egiten dute, kontrako erreitik, herriarentzat atzera-egite nabarmena suposatzen duen politika eginez.

2006tik hona langabetu tasa hirukoiztu da gure herrian, batez ere zerbitzu arloan. Baina zerbitzu hiria den Durangoren kontuetan, 2006ko kontuekin alderatuta, ez duzue inongo aldaketarik sumatuko. Aurrekontu teknokratak dira soilik. Teknikariek euren lana ondo eginez urterik urte datu ekonomikoak aurkezten dituzte, baina irizpide politiko barik. Udaletxe honek ez baitauka gidaritza politikorik. Adibide ona inbertsioetan topa dezakegu, pasa den urtetik hona inbertsioen %27 garatu dira bakarrik, bertan, oraindik 2005 urtean jasotzen ziren inbertsioak egiteke egonik.

Horregatik, Aralarrek oposizioko beste alderdi guztiekin bilerak egingo ditu, euren lehentasunak jakite aldera. Guztion artean oposizio eraginkorra egiteko moduan gaude, minimoak adostuta, oposizio eraginkor horretara batu gura dutenak elkartuz. Gure iritziz, funtsean, udal taldearen kudeaketak kontuak koadratzeko duen obsesiotik harago joan behar du. Irizpide politikoak jarri behar dira jarduerak egiteko eta ez bakarrik irizpide ekonomikoak eta teknokratak.

Laguntzaileak:

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

ABADIÑO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI IURRETA IZURTZA MALLABIA MANARIA OTXANDIO ZALDIBAR

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak >
Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko ekainaren 8a
10. urtea - 462 zk.

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia, Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarrieta.
Zuzentzailea: Ekaitz Goienetxea.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Juanra de la Cruz eta Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

@anbotokirola

KIROLAK >

Biharko Izarrak txapelketako finala jokatuko du Landaburu elorriarrak

Elezkanogaz batera bikotea osatu eta Santxo-Tolosa izango dituzte aurrez aurre gaur

Ander Elezkanok (ezkerrean) jokoan sarritan sartzen saiatu beharko du, Xabier Tolosa (eskuinean) atzean mantentzeko.

Biharko Izarrak pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte gaur, 20:00etan, Mallabia I pilotalekuan. Binakakoan, Durangaldeko ordezkari bat egongo da lehian: Jon Landaburu elorriarra. Ander Elezkano zaratamoarragaz osatuko du bikotea. Parez pare, Xabier Santxo aurrelari bizia eta Xabier Tolosa atzelari sendoa izango dituzte; txapelketa bikaina egin dute.

Atzean lan zailak izango ditu Landaburuk. Tolosa anoetarrak hamasei urte bakarrik dituen arren, egindako pilotaria dela erakutsi du eta jotzailea da. Landaburuk ofizioa eta segurtasuna izango ditu armarik onenak.

Aurrean Elezkano I.ak agindu behar luke. Zaratamoarra gaur egun afizionatuetan aurki daitekeen pilotaririk onenetakoa da. Jokoan sartzen denean pilota beste txispa bategaz irteten da aurreko hormatik. Dena dela, Xabier Santxo sasoian eta konfiantzagaz dago eta pilotari arriskutsua da.

> Landaburuk ofizioa eta segurtasuna izango ditu armarik onenak

Irribarria errebantxaren bila

Binakakoaren aurretik lau t'erdiko finala jokatuko dute Iker Irribarria amezketarrak (hamasei urte) eta Asier Agirre burlatarrak (hamazazpi urte). Joan zen asteburuan, Donostian, Antiguoko lau t'erdiko finala jokatu zuten pilotari biek eta Agirrek irabazi zuen. Gaur, bigarren aukera izango du Irribarriak Agirreren aurka. ■ J. Derteano

Koikiliren lagunartea aurkeztuko dute

Koikili Lertxundi futbol jokalariaren lagunartea aurkeztuko dute gaur Otxandion. Ekitaldia 19:00etan hasiko da, Andikona plazan. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ekitaldian parte hartuko dute Athleticeko presidente Josu Urrutiak, eta Ibai Gomez eta Iñigo Ruiz de Galarreta jokalariak ere. Koikilik berba batzuk zuzenduko dizkie bertaratzen direnei eta, ostean, luntx bat egongo da Haitz tabernan. Koikiliren lagunarteak ehun kide inguru ditu.

Otxandiokoa ez da Koikiliren lagunarte bakarra izango; Gatikan eta Gasteizen ere baditu lagunarte bana. ■ J. D.

Mas Curvas elkarteak bost urte bete ditu

Motorren inguruko Mas Curvas elkarteak bosgarren urteurrena ospatuko du zapatuan. Goizeko 10:00etan hasiko dira izena ematen (10 euro), Landako Gunean. Ondoren, Maite's Place tabernan hamaiketakoa egin eta bisita gidatua egingo dute Durangon zehar.

Eguerdian, 14:00ak aldera, bazkaritara batuko dira Landako Gunean; 250 lagun batzea itxaroten dute. 15:00etan Javier Mañonek umorezko bakarrizketa saioa eskainiko du. Segidan motorra hartu eta ibilbidea osatuko dute Durangaldean. Azkenik, 22:00etan, Belceblues taldeak kontzertua eskainiko du. ■ J.D.

Paletan eta pilotan Euskadiko onenak dira Diez eta Marizkurrena

Haur-kategorian gomazko paletako eta esku pilotako Euskadiko txapeldun geratu dira Ane Diez eta Amaia Marizkurrena atxondarrak. Bizkaia ordezkatuz, paletan 25-13 menderatu zuten Arabako bikotea joan zen zapatuan; hurrengo egunean esku pilotan, 18-10 irabazi zioten Gipuzkoari .

Bestalde, mutiletan Atxondok gazteen Bizkaiko herri arteko finala jokatuko du gaur, 18:30ean, Zornotzan, Orozkoren aurka.

Peter-en memorialeko finalak jokoan, bihar

Nagusietan Jon Aranburu durangarrak eta Andoni Aldape mallabitarrak jokatuko dute

Zapatu arratsaldea pilotaren inguruko jai bihurtzea gura du Durangoko pilota eskolak. Horregatik, aurten bi txapelketako finalak batu egin dituzte. Lehenengo, 16:30ean, pilota eskolako gaztetxoen txapelketako finalak jokatuko dituzte benjamin eta kimu mailetan. Ondoren, 18:00etan, Peter-en memorialeko finalak hasiko dira.

> Lehenengo pilota eskolako gaztetxoen finalak jokatuko dituzte

Nagusietan Jon Aranburu durangarrak eta Andoni Aldapen mallabitarrak Zugadi-Ajuria bikotea izango dute parez pare. Atzean, Aldapek nagusitu behar luke. Horrela, Aranburuk aukerak izan ahal ditu aurrean tantoa amaitzeko. Zugadi sasoiko dago, baina pilotari gorabeheratsua da.

22 urtez azpiko mailan, Ortuellako Aginaga-Lopez eta Gernikako Iturbe-Gomez bikoteak heldu dira finalera. Iturbe aurrelari bizia da eta airez sartzen denean partiduari erritmoa ezartzen dio. Aginaga aurrelari klasikoagoa da, botera gehiago jokatzen duena. ■ J. D.

Euskal ligarako igoera jokoan du Lagunek

Areto futbolean, Maila gorenetik Euskal ligara igotzeko promozioa jokatuko du Abadiñoko Lagun taldeak Gasteizko Lakua taldearen aurka. Joaneko partidua zapatuan izango da, 17:50ean, Elorrioko kiroldegian. Partidu bien ondoren berdinketa ematen bada, kanpoan sartutako gol kopurua hartuko da kontutan. Horregatik, bihar gol asko sartzea bezain garrantzitsua da atea hutsean mantentzea.

Promozio hori Gipuzkoako talde batek ere jokatu behar zuen, baina talde horrek ez du mailaz igo gura eta ez du promozioa jokatuko. ■ J. D.

Teutenberg beteranoa da Birako lehenengo liderra

Tropelak ez zuen ihesaldirik gertatzen utzi eta esprintean 37 urteko alemaniarra nagusitu zen; Lekeition amaituko da bigarren etapa

Esprintean erraz irabazi zuen Team Specialized Lululemon taldeko txirrindulariak. K.Aginako

Emakumeen Birako lehenengo etapatik ezin daiteke ondorio askorik atera. Iurreta eta Abadiño arteko 97 kilometroetan ihesaldi saiakera bi bakarrik egon ziren, baina tropelak irten bezain laster irentsi zituen. Sprintean Ina Yoko Teutenberg izan zen azkarrena eta bera da lehenengo liderra. 37 urteko alemaniarrak palmares zabala du; besteak beste, Frantziako Tourrean sei etapa irabazitakoa da.

Beste hiru etapa geratzen dira Emakumeen Bira amaitzeko. Gaur kostaldetik ibiliko dira txirrindulariak, Gernika-Lumon hasi eta amaituko den etapan. Lekoitz gainerako igoera da ibilbideko tarterik gogorrena. Bigarren mailako mendatea da eta helmugatik hogei kilometrora kokatuta dagoenez, faboritoek erasorako baliatu ahal dute.

> Gaur Lekoitz gainerako igoera da ibilbideko tarterik gogorrena

Bihar, 13 kilometroko erlojupekoari aurre egingo diote Urduñan. Ibilbidea gorabeheratsua da, txirrindulari abilentzat aproposa. Domekako azkenengo etapa, Urduñan hasi eta lurretan amaituko da, 13:40 inguruan. Helmugarako 25 kilometroren faltan, Urkiola mendatea jaitsiko dute eta espezialistek aldea atera dezakete, hainbat bihurgune itxi daudelako. Gainera, helmugara heldu aurretxoan Duña gaina igo beharko dute txirrindulariek.

Durangon Pooley nagusi

Martitzenean, Durango-Durango Emakumeen Saria klasikoan lehiatu ziren Birako ia txirrindulari guztiak; Emma Pooley izan zen azkarrena. Montecalvon gora ihes egin eta bakarrik helmugaratu zen. ■ J. D.

ADITUAREN TXOKOA

Kepa Arroitajauregi
Pilota teknikaria

Aldrebeskeri asko

Gaurkoan aitatuko ditudanak irakurtzean batek baino gehiagok pentsatuko du burua galdu dudala edo pilotaren inguruan ezer gitxi dakidala. Agian arrazoia izango du hori pentsatzen duenak, baina nire iritzia botatzeko gogoz nago eta hor doa.

Pasa den igandean *manomanista* nagusiko lehen aurrefinala jokatu zan Eibarko Astelenan, eta gehienei partidu itzela izan zela entzun deutseet. Bada, ni ez nago batere ados afirmazio horregaz; niri ez jatan aurrefinala batere gustatu. Arrazoiak segidan. Erritmo biziko partidua izan zen. Idoate zein Irujok errekurtso asko zeukazeela argi geratu zen. Baina, burua? Jokua, behar zenean, lasaitzeko gaitasuna? Banakakoa guztiz eraldatu da jokuari jagokonez, lehen joku dena botera zen eta orain itxuraz pekatu da pilotak zoruan punpa egitea. Egia da errekurtso askoz gehiago jartzen direla agerian kantxan gaur egun, baina partidua irakurtzen ere jakin egin behar du txapeldun handi batek, hutsak ekiditen eta pilotakada mota bakoitza bere momentuan bilatzen. Aldrebeskeri asko ikusi nituen Eibarko Astelenan, baita aurreko beste lehia askotan ere. Beharrezkoa al da horrenbeste presa, arrisku…, hartzea?

Noski, eta honek ikusita, gazte mailatan asko dira horrelakoak egiten saiatzen direnak, oraindino akats gehiago izanaz eta aitaturikoen mailatik oso urrun izanda. Ikusiko dira halakoak gaur Mallabiko Biharko Izarretako finaletan, edo bihar Ezkurdin ere, Peter Oroimenezko finaletan, edo Elgetako Lau t' erdikoan,… Batzuek ausardiatzat hartuko dute, edozein kirolarirengan merituzkoa dena. Baina askoz garrantzitsuagoa da zuhurtzia. Azken honetaz baliatuz emaitzak normalean hobeak izango dira.

Ekainean, areto futbol txapelketa bi Durangon

Sasikoak antolatu duen gazte mailako txapelketa ekainaren 15etik 17ra izango da

Liga erregularrak amaitzeaz batera, areto futbol txapelketak antolatzen dituzte urtero Durangaldeko hainbat herritan. Esaterako, Durangon Gazte Mailako IV. Txapelketa eta VI. San Fausto Txapelketa jokatuko dituzte.

Gazte mailako txapelketa Sasikoa klubak antolatu du eta 1993 eta 1995 urteen artean jaiotakoei zuzenduta dago. Ekainaren 15etik 17ra jokatuko dute Landako kiroldegian. Izen-ematea 10 euro izango da: *cdsasikoa1997@gmail.com*.

San Fausto txapelketa ekainaren 18an hasi eta uztailaren 21ean amaituko dute. Gehienez, hamasei taldek parte hartu dezakete eta izen ematea 100 euro da. ■ J. D.

Irabazi eta marka berria ezarri du Azkorbebeitiak

2010ean baino ordubete eta hamar minutu gutxiagotan osatu zituen Hiru Haundiak

Oihana Azkorbebeitia erdian, txapela buruan duela.

Denboraldiari amaiera ezinhobea eman zion Oihana Azkorbebeitia abadiñarrak Hiru Haundiak mendi lasterketa irabazita (13:37:35). 2010ean ere bera nagusitu zen eta marka berria ezarri zuen. Aurten, marka hori txikitu egin du: ordubete eta hamar minutu gutxiagotan osatu du 100 kilometroko ibilbidea.

Orain urte bi ezin izan zuen ibilbideko azken tartea ehuneko ehunean egin, ezker koadrizepsa mindu zitzaiolako. Aurten ez du inongo lesiorik izan eta azken unera arte topera ahalegindu da. Nerea Amilibia bigarren sailkatuari hamar minutu atera zizkion.

Azpimarratu beharra dago Silvia Trigueros abadiñarraren lana ere. Hirugarren sailkatu eta podiumera igo zen, 15:13:29ko denboragaz.

Gizonetan, Iker Karrera tolosarrak irabazi zuen lasterketa. Eskualdeko lehenengoa Beñat Gorospe otxandiarra izan zen, 37. postuan. ■ J. D.

Gazte zein heldu, denek eragin zieten pedalei spinning maratoian

Euskararen aldeko II. Spinning Maratoia Ezkurditik merkatu plazara tokialdatu zuten eguraldiaren eraginez. 150 bizikleta zeuden aurreikusita eta denak bete ziren. Antolatzaileen arabera, partaide gehienak 25-35 urte artekoak izan ziren (%49). Gazteenak hamazortzi urte zituen eta nagusienak 61. Parte-hartzaile gehienak emakumeak izan ziren (%64).

OSASUN GIDA

FISIOTERAPIA

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

PODOLOGIA

JON GERRIKAETXEBARRIA PODOLOGO

Gaixotasunak - Ortopedia
Oinaren kirugia

IMQ - SANITAS - ARESA
Ermodo, 2- 1. eskuma • DURANGO
tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA

clínicadental hortzklinika

B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO
tf: 94 681 99 51

Josu Zabala · Mikel Larrañaga · Araitz Irazu
hiru fisioterapia

HIRU
FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO
tf. 94 466 94 00

GOIATZ MURUA PODOLOGIA KLINIKA

GOIATZ MURUA
LETURIAGA

PODOLOGOA
Kiropodia,Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO
tf: 94 620 36 30

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO
tf: 94 681 22 00

Oreka
Idurre Zabala Amezua

FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILIZAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezin eustea, *traumatologia, kirola, trafiko istripua,*
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),…

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ
tf. 94 622 55 93

ODONTOLOGIA

keñu

ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria.
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ
tf. 94 622 50 99

PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 — Durango
jon@psikologo.biz — www.psikologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO

tf. 94 655 00 49 / 695 784 963

AISIALDIA >

amalurra

Kontsumo neurriak hartuz gero, argiaren faktura %57 gutxitu ahalko da Iurretan

Bi hilabetez argiteriaren eraginkortasun energetikoa neurtzen jardun dute; laster udal eraikinen kontsumoa aztertuko du EEEk

Proposatutako neurriak aplikatzeko, 200.000 euro beharko lirateke

Argi kutsadura gaueko ekosistemarentzako ere kaltegarria da

Argiteria mota, kontsumo maila, potentzia, ordutegiak, erregulazioa... Iurretako kale argiteriaren alderdi batzuk aztertzen jardun du Consultoria Luminica izeneko merkatari-etxeak. Bi hilabetez herriko argi iturriak aztertu eta gero, kontsumoa gutxitzeko hainbat neurri proposatu ditu. Neurri horiek martxan ipinita, Iurretako faktura %57 gutxituko litzateke, ikerketaren arabera. Proposatutako neurriak aplikatzeko, 200.000 euro inbertitu beharko lirateke.

Herrigunean 106 area aztertu ditu Consultoria Luminicak. Guztira, kale multzo, etorbide, parke eta enparantzetako 1.197 argi puntu eta 28 aginte zentro aztertu ditu. Azterketa hau egiteko 15.126 euroko kontratua sinatu zuen udalagaz.

Kale argiteriaren azterketa horrez gainera, Iurretako Udalak EEEren bidez udal eraikuntza publikoen kontsumoa aztertzeko ikuskaritza egitea aurreikusi du. Iurretako alkate Iñaki Totorikaguenak azaldu duenez, "azterketa bien emaitzak ikusi eta gero, aurrezte energetikorako eta aurreikusitako efizentzia hobetzeko neurri eta ekintza egokiak aztertuko dira".

Argiterian aldaketak eginda, aire kalitatea hobetu eta berotegi efektua sortzen duten gasak gutxitzea lortuko dela adierazi du Totorikaguenak.

Argiteria berriagaz zaharra ordezkatzeak aurrezte handia ekar lezake. Durangon, esaterako, horrelako lanen informazioa eman dute, eta Landako Gunean 662 lanpara aldatuta, energia %68 aurreztu dute.

Distiraren kutsadura

Argi kutsaduraren ebidentzia argiena zeruan gauez sortzen den laino moduko distira da. Argi artifiziala islatu eta zabaldu egiten da gas eta aire partikuletan, eta horrek zeruak baldintza naturaletan duen kalitatea aldatu egiten du, izarrak estaltzera heldu arte.

Gastu energetikoaz eta ekonomikoaz gainera, bide segurtasunean eta aire trafikoan kalteak eragiten ditu argi kutsadurak, eta gaueko ekosistemarentzako ere kaltegarria da. Izurriteak eta denboran irauten duten ingurugiroko aldaketak sortu ditzake argi kutsadurak. Adibidez, ikerketa batzuen arabera, argi artifiziala denbora luzez jasotzen duten arbola batzuetan, gauez fotosintesia alderantziz egiten dutela ikusi dute.

Argi kutsadura murrizteko politikak

Behar dena argiztatu: argia beherantza ematen duten farolak ipini, energia gorantz galdu ez dadin.

Lanparak: potentzia baxukoak ibili.

Argiztatze-mailak egokitu: maila egokiak definitzen dituzten erakundeak daude.

Erregulatu: eraikuntza, monumentu eta publizitate argiak erregulatu.

Ordutegia zaindu: aktibitate gutxiko orduetan kontsumoa gutxitu, beharrezko ez diren argiak identifikatuta.

laguntzaileak
berrizko UDALA
Garaiko Udala
IURRETAKO ELIZATEKO UDALA
Mallabiko Udala
Otxandioko Udala
Zaldibarko Udala
babeslea: URKIOLA PARKE NATURALA

DURANGO

ERROTARITXUENA

Arriskurik gabeko aukera bat

Bezero izatearen lasaitasunarekin

- Sustapenaren finantzaketa ez delako arazo bat.
- Bezeroaren finantzaketa idatziz bermatzen delako.
- Eskatutako finantzaketen %90 ematen delako.
- 1. faseko emaitza ezagutzen duzulako.
- Obra aurrera doa 2013ko abenduan zure etxebizitza eduki dezazun.
- Sinatzen duzuna ezagutzen duzulako.
- BEZEROA zarelako, bestelako trabarik gabe.

%100 arte finantzatutako erosketa:

SabadellGuipuzcoano

2 log. 199.000€-tik aurrera + BEZ

Eraikitzen ari garen promozioa. Informazio hau aldatu egin daiteke arrazoi tekniko edo komertzialengatik. Apirilaren 21eko 515/89 E.D.an eskatzen den eta publizitate honen barruan ageri ez den informazio guztia interesatuen esku dago gure merkataritza-bulegoetan.

www.sukia.com
www.solvia.es

sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

946 46 20 41

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman) edo bidali mezua anboto@anboto.org-era. Tel.: 94-623 25 23
Paperean, ordainduta: Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALDU

Cuzcurrita. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Jantzia. Garajea. Igerilekua. Terraza. Tel.: 670-360 363

Abadiño. Laubidetan. Kalitate handiko materialekin. 3 logela, bainugela, egongela balkoiarekin eta sukalde hornitua. 246.000 euro (negoziagarriak). Tel.: 615 73 85 52

Abadiño. 98 m2. Muntsaratzen. Tel.: 678 83 60 50

Atxondo. 75 m2. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, balkoia. Altzariz hornitua. 180.000 euro. 655-73 74 47.

Garai. Baserria. 300 m2-ko zorua. 10.000 m2-ko lursaila. Berrikuntza orokorra behar du. Bifamiliarra egiteko aukera. Tel.: 639833489.

Gasteiz. 57 m2. Igogailua. 2 logela, 2 komun, sukaldea, balkoia. Garajea. Piszina. Altzariak. Tel.: 665757807.

Iurreta. Arriaundin. 66.000 euro. Tel.: 685-72 80 42.

ERRENTAN EMAN

Villarcayo. 2 gela, sala, sukaldea, komuna.610 61 52 60

Atxondo. Jantzia. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Tel.: 680 42 77 02

Durango. 3 logela eta 2 komun. Garaje eta trastelekua. Animaliarik ez. 625-70 41 12.

Mañaria. 3 gela. Balkoi handia. 94 682 41 08 (goizez).

Otxandio. Tel.: 605 77 37 21

Zaldibar. Tel.: 660 45 87 56

ERRENTAN HARTU

Durangaldea. Pisu bila. Tel.: 628-00 22 17

Durango. Pisu bila. 3 gela. Ekainaren 22tik uztailaren 21era. Tel.: 670 85 93 16

OPORRETAKO ETXEA

ERRENTAN EMAN

Puerto rico. Itsasora. Astebete edo 15 egun. Oso merke. Tel.: 670-31 12 23

Oropesa del mar. Marina dorren 4-6 pertsona. Udan eta urte osoan zehar. Hondartzatik 150 metrotara. Garajea. Igerilekua. 670 214 924.

PISUA KONPARTITU

Berriz. Logela alokagai, baserrian. Nahiago emakumea. Tel.: 619 66 58 57.

Durango. Logela bat alokagai. Tel.: 650 73 87 24

Durango. Alde zaharrean. Prezioz merke eta giro atsegina. Tel.: 650 29 42 20

Orozko. Logela bi Orozkon. Giro familiarra. Autobus geltokitik gertu. Tel.: 660-62 64 86 edo 659-20 16 45

LOKALAK

Abadiño. Tel.: 661 45 18 51.

Durango. 42 metro karratu. Kanpora. Altzariak eta batzar gela. Prezioa: 550 euro/hilean. Tel.: 656 78 02 15

GARAJEAK

SALDU

Berriz. 42 m2. Ate automatikoa, komuna, sukaldea, txokoa, bodega. Ura eta argia. 3 auto. Tel.: 615 75 21 36

Durango. Itxia, Konbentukale 23an. Tel.: 667 35 14 00

Durango. Askatasun Etorbidea 12an. 660 20 18 30

ERRENTAN EMAN

Berriz. Learreta-Markinan, itxia alokagai (erosteko aukera). 666 34 14 02 (Mikel).

Berrizen. Sukaldea, egongela, 3 logela, 2 komun. Dena jantzia, oso eguzkitsua. Tel.: 663 397 588

Durango. Alokagai-salgai San ignazion.94 681 25 10.

Durango. Askatasun etorbidea. 50 e/hile. 675 71 95 54

Iurreta. Eleixalden. Tel.: 636 22 07 96

Lana/negozioak

LAN ESKARIAK

OSTALARITZA

Durango. Gazte euskalduna, zerbitzari lanak egiteko prest. Tel.: 615 716 232

Durangaldea. Sukaldean, garbiketan edota zaintzan lan bila. Tel.: 653-33 06 05 edo 94-466 82 12. Genevie.

ETXEKO LANAK

Durangaldea. Etxeko lanetarako lan bila, garbiketan edo zaintzan. 638-88 98 57

Durangaldea. Etxeko lanterako zein zaintzarako prest, paperekin. 648-845 554

Durangaldea. Garbiketetarako prest. 634-07 27 38

Berriz. Berrizko emakumea lan bila: garbiketa lanak, umeak edo nagusiak zaindu. Esperientzia daukat. Kotxea. Tel.: 659243548

PERTSONAK ZAINDU

Durangaldea. Zaintzan edota garbiketa lanetarako. Lan bila. Tel.: 679-716 442

Durangaldea. Zaintzan zein garbiketarako lan bila. 3 urteko esperientzia. 681 21 82 30

Durangaldea. Zaintzarako, garbiketarako, sukalderako,... edo fabrikarako lan bila. Tel.: 628-34 98 11. Juana

Durangaldea. Zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Tel.: 660-70 66 18

Durangaldea. Nagusien zaintzarako edo sukalde lanetarako prest. Asteburuetan edo gauez. 645-89 89 38

Durangaldea. Zaintzarako, garbiketarako zein taberna edo jatetxe lanetarako lan bila. Tel.: 673-55 25 91

Durangaldea. Nagusien zaintzarako edota edozein garbiketa lanetarako prest. Tel.: 630-08 82 97

Durangaldea. Nagusiak zaintzeko lan bila. Tel.: 632-33 15 65

Durangaldea. Nagusien edo umeen zaintzarako edo garbiketa lanetarako prest. Tel.: 660-64 20 89

Durangaldea. Nagusien edo umeen zaintzarako edo garbiketarako lan bila. Tel.: 690-68 73 95

Durangaldea. Nagusien edo umeen zaintzarako prest dagoen neska. 638-42 20 30

Durangaldea. Nagusiak zaintzeko lan bila. Tel.: 681-38 40 24

Durangaldea. Asteburuetarako edo gauetarako lan bila. Nagusien edo umeen zaintzan. Tel.: 664-73 38 75

Durangaldea. Umeen edo nagusien zaintzarako, garbiketarako... prest. Tel.: 620-82 85 79

Durangaldea. Nagusien edo umeen zaintzarako lan bila. Tel.: 696 75 35 30.

Durangaldea. Nagusiak zein umeak zaintzen lan egingo nuke. Garbiketan ere bai. Tel.: 660-64 20 89

Durangaldea. Garbiketarako edota nagusiak zaintzeko. Tel.: 628 65 50 31

Durangaldea. Garbiketarako, zaintzarako lan bila. Tel.: 650-17 24 33

Durangaldea. Neska arduratsua pertsona zaintzeko prest. 632-117 723

Durangaldea. Neska arduratsua nagusiak zaintzeko prest. 602 00 83 58

Durangaldea. Garbiketa lanetan edota ume edo nagusien zaintzan aritzeko prest. Tel.: 690-68 73 95

Durangaldea. Zaintzan edota garbiketan aritzeko prest. Tel.: 638-52 39 22

